

KANBOKO HERRIKO ETXEA

Pirinio Atlantikoetako departamendua

2019ko OTSAILAREN 25eko HERRIKO KONTSEILUAREN TXOSTEN LABURRA

Bi mila eta hemeretzi otsailaren hogeita bostean, Herriko Kontseilua bildu da Herriko Etxean, behar bezala deiturik, Christian DEVÈZE jaun auzapezordea mahaiburu. Bilkura 19:00etan hasi da.

Hor zirenak: Christian Devèze jauna, Eliane Noblia anderea, Frédéric Bardin jauna, Pascale Lespade anderea, Didier Irastorza jauna, Eliane Aizpuru anderea, Henri Saint Jean jauna, Anne-Marie Pontacq anderea, axuantak; Vincent Bru jauna, Vincent Goytino jauna, Christiane Hargain-Despéries anderea, Patrice Dor jauna, Yolande Huguenard anderea, Jean-Jacques Lassus jauna, Argitxu Hirigoyen anderea, Jean-Noël Magis jauna, Corinne Othatceguy anderea, Peio Etchelecu jauna, Roger Barbier jauna, Carmen Gonzalez anderea, Pascal Bourguet jauna, Véronique Larronde anderea, Argitxu Hiriart-Urruty anderea, Philippe Bacardatz jauna, Amaia Beyrie anderea, herriko kontseilariak.

Bilkurara ezin etorria jakinarazi zutenak: Bernadette Jougoux andere auzapeza, Maryannick Hirigoyen anderea, Camille Jenvrin jauna, Nathalie Aïçaguerre anderea, herriko kontseilariak.

Ahalordea: Bernadette Jougoux andereak Christian Devèze jaunari ahalordea eman zion; Camille Jenvrin jaunak Didier Irastorza jaunari; Nathalie Aïçaguerre andereak Argitxu Hiriart-Urruty andereari.

1 - Bilkurako idazkariaren izendatzea.

Argitxu Hirigoyen anderea **aho batez** bilkurako idazkari izendatua izan da.

2 – Azken bilkurako agiriaren onartzea (txostengilea: Devèze jauna).

Herriko Kontseiluari galdegin zaio 2018ko azaroaren 26an iragan Herriko Kontseiluaren azken bilkurako txostenaren onartzea.

Aho batez onartua.

3 – Saneamenduaren aurrekontua: aktiboa eta pasiboa Euskal Elkargoari eskualdatu da (txostengilea: Devèze jauna).

Herriko Kontseiluari galdegin zaio onartzea Kanboko saneamenduaren aurrekontua Euskal Hirigune Elkargoari eskualdatua izan dadin, aktiboen eta pasiboen zenbatekoak zehaztuak zirelarik, eta Kanboko kontulari publikoari baimentzea 2018ko kontu aldiko idazketak egiazat ematera.

Aho batez onartua.

4 – Herriko seinaletikaren azterketa: ikerketa-bulegoaren hautatzea (txostengilea: Dor jauna).

Bere lurraldearen irudiaren eta erakargarritasunaren hobetzeko, Herriko Etxeak seinaletikari buruzko ikerketa bat egiteko asmoa du 2019an: bideko seinaletikari buruz eta saltegieta eta Kanboko leku interesgarrietako seinaletikari buruz.

Ikerketa horrek obralaritza bideratuko eta lagunduko du gunen komunentzako obratzeko eta pertsonalizatzeko seinaletikaren sortzeko xedez lekuko gunen interesgarrientzat baita ere saltegiarentzat eta jarduera ekonomiko eta turistikoentzat.

Eskaintzak kontsulta-dokumentuan aipatu hautaketa-irizpideen arabera aztertu ondoan, eta 2019ko urtarrilaren 28an, astelehenean, iragan bilkuraren ondotik, MAPA batzordeak proposatu du eskaintza merkeenaren atxikitzea, hots, PBO Designen eskaintza: 9 480 € (BEZik gabe).

Herriko Kontseiluari galdegina zaio:

- Tratua PBO Design sozietateari esleitzea: 9 480 € (BEZik gabe).
- Baimentzea andere auzapeza tratu horren eta operazio horri buruzko dokumentu oren izenpetzera.

Aho batez onartua.

5 – Eskolako eraikin baten eraikitzea Behereko Plazako eskolako prefabrikatu baten ordeztzeko: agiri aldatzaileak egiten ari dira – gehigarriak (txostengilea: Noblia anderea).

2018ko ekainaren 4ko deliberamenduaren arabera, Herriko Kontseiluak onartu du obren egiteko tratua duten enpresen hautaketa eskola eraikin baten eraikitzeko. Honek Behereko Plazako eskola publikoko prefabrikatu bat ordeztuko du.

Obrak 2018ko uztailean hasi ziren. Eraikina desegitean, hitzartu da eraikuntza berria beste nonbait kokatuko zela, eta horri loturik aterpe bat eraikiko zela, eta eraikinak ez zuela estairik ukanen. Aterpearen teilatuak eraikuntza berriaren teilatuarekin bat egiten du, eta eskolako eraikin nagusiari lotuko da, sintesi dokumentuan aipatu bezala.

Aldaketa horiek egokitzapen bat eskatzen dute bai teknika bai diru mailan, aterpea eraikitzean bi zati hunkiak izanzen baitira, hots, 2. zatia: egitura nagusia, Ustabat sozietateak egiten duena, eta 3. zatia: zureria, Sarl Jean-Pierre Iriartek egiten duena.

MAPA batzordea 2019ko urtarrilaren 28an bildu da eta Herriko Kontseiluari proposatu dio:

- Agiri aldatzaileak horrela onartzea:
 - o 2. zatia: S.A.R.L – USTABAT – 13 421,10 € (BEZik gabe); beraz, tratuaren zenbatekoa orotara 109 038,60 €-koa izanen da (BEZik gabe)
 - o 3. zatia: S.A.R.L JEAN-PIERRE IRIART, 8 232,44 € (BEZik gabe); beraz, tratuaren zenbatekoa orotara 25 172,94 €-koa izanen da (BEZik gabe)
- Baimentzea andere auzapeza tratu horiei buruzko desmartxa oro egitera eta doazkien dokumentu ororen izenpetzera.

Aho batez onartua.

6 – Elizaren berritzea, 2. fasea: agiri aldatzailea egiten ari da – gehigarria (txostengilea: Magis jauna).

2017ko azaroaren 27ko deliberamenduaren arabera, Herriko Kontseiluak San Laurendi elizaren berritze egitaraua onartu du. Hiru fasetan berrituko da.

2. fasea 2018ko irailean hasi zen, eta obra gehigarriak beharrezkoak dira 2. zatian (zureria-teilatua-zink lanak-zurgintza). Sarl Panpi Duhaldek du tratua, sintesi dokumentuan aipatu bezala.

MAPA batzordea 2019ko urtarrilaren 28an bildu da obra gehigarri horien ezagutzeko eta Herriko Kontseiluari proposatu dio:

- Onartzea 2. agiri aldatzailea obra-tratuaren 2. zatiarentzat Sarl Panpi Duhalderekin. + 3 208,68 € (BEZik gabe) kostako du, beraz, zati horrendako tratuaren zenbatekoa orotara 163 039,17 €-koa izanen da (BEZik gabe) (1. agiri aldatzailearen ondotik izenpetu tratuaren 159 830,49 €en ordez).
- Andere auzapezari baimena ematea tratuari buruzko dokumentu oro izenpetzera.

Aho batez onartua.

7 – Argiteria San Josep parkean: agiri aldatzaileak egiten ari dira – gehigarria (txostengilea: Bardin jauna).

2018ko ekainaren 4ko deliberamenduaren arabera, Herriko Kontseiluak LACIS sozietatea hautatu du San Josep parkeko eta inguruko (jendarmeriako karrika itsua eta lorezainen karrika) argiteriaren obra-tratuaren burutzeko.

Obren bilkura denboran aldaketak egin dira. Eta, beraz, balio murriztea eta emendatzea doitu behar dira, sintesi dokumentuan agertzen den bezala.

MAPA batzordea 2019ko urtarrilaren 28an bildu da elementu horien ezagutzeko eta Herriko Kontseiluari proposatu dio:

- Onartzea LACIS sozietatearekin izenpetu obra-tratua modifikatzen duen agiria. Obra horiek -4 435,36 € (BEZik gabe) kostako dute, eta beraz, tratua 74 443,64 €-koa (BEZik gabe) izanen da 78 879 €-ren (BEZik gabe) ordez.

- Baimentzea andere auzapeza tratu horri buruzko desmarta oro egitera eta doazkion dokumentu ororen izenpetzera.

Aho batez onartua.

8 – San Laurendi elizako obrak – 3. fasea: KAEZen finantzamendu planaren onartzea (txostengilea: Magis jauna).

2016an Herriko Etxeak Frantziako Estatuari galdegin zion monumentu historiko gisa ekarria den San Laurendi elizaren berritzeko eta balioa emateko diru-laguntza bat, 2016an izenpetu tratu publikoaren arabera inbestimendu zenbatekoan oinarritua, hots, 813 579 € (BEZik gabe).

Herriko Etxeak, 2019ko 2. urte erdian 3. faseko obrak egiteko asmoa du: nabea barnetik eta kanpotik arraberritzeko baita ere haren kalostra.

Horretarako, KAEZek proposatu finantzamendu proiektua horrela onartzea komeni da:

- Diruz lagunduak izan daitezkeen obren zenbatekoa: 235 000 € BEZik gabe (282 000 € BEZa barne)
- Estatuaren diru-laguntzaren zenbatekoa (% 40): 94 000 €
- Herriko Etxearen parte hartzearen zenbatekoa (BEZa barne): 188 000 €

Galdegin zaio Herriko Kontseiluari Estatuaren finantzamendu planaren onartzea (KAEZ), baita ere andere auzapeza baimentzea operazio horri buruzko dokumentu oro izenpetzera.

Aho batez onartua.

9 – Vacanciel: Zerbitzu Publiko Ordezkaritza hitzarmenaren 1. gehigarria (txostengilea: Devèze jauna).

2003ko azaroaren 24ko deliberamenduaren arabera, Herriko Kontseiluak erabaki zuen Zerbitzu Publiko Ordezkaritza VACANCIEL sozietatearen gomendio uztea Arnaga herrixkaren kudeatzeko, 2004ko urtarrilaren 1az geroztik eta hogeita bost urterendako.

Kudeatzaileak Herriko Etxeari jakinarazi dio 2004ko martxoaren 18an izenpetu Zerbitzu Publiko Ordezkaritza hitzarmenaren karietara dituen eskubide eta eginbehar guztiak nahi lituzkeela berriki sortua den CAP'VACANCIEL adarrari eskualdatu. Adar horren erdia VACANCIELena da eta beste erdia CAP'VACANCIELena.

Herriko Kontseiluari galdegin zaio andere auzapeza baimentzea Zerbitzu Publiko Ordezkaritza hitzarmenaren 1. gehigarria izenpetzea. Gehigarri horren helburua da lehengo kudeatzailearen (Vacanciel) eskubide eta eginbehar guztiaren eskualdaketa formalizatzea kudeatzaile berriaren faboretan (Cap'vacances).

Aho batez onartua.

10 - Herriko diru-laguntzak (txostengilea: Saint-Jean jauna).

Herriko Kontseiluari galdegin zaio onartzea 20 diru-laguntzaren ematea 2018-2019 ikasturterako, hots 7 537 € (kredituak aurreikusiak dira jatorrizko aurrekontuan).

Aho batez onartua.

11 - Euskal Elkargoak hautuzko eskumenak hartu ditu:

11-a: Gobernantza, estrategia eta ekintza laborantza-lur zergen zaintzearen alde (txostengilea: Bardin jauna).

Herriko Kontseiluari galdegin zaio hautuzko eskumen horren alde bozkatzea sintesi dokumentuan zehaztua den bezala:

- Euskal Herriko gobernantza baten animatuz laborantza-lur zergen strategiaren alde,
- Laborantza-lur zergen zaintzeko tresnen berri emanez,
- Laborantza-lur zergen zaintzeko tresnetan parte hartuz.

Hor ziren kideen gehiengoa alde agertu da.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak, Philippe Bacardatz jaunak, Nathalie Aïçaguerre andereak, Amaia Beyrie andereak ez dute bozkatu.

11-b: Denendako elikadura sano eta iraunkorraren sustatzea eta sostengatzea (txostengilea: Irastorza jauna).

Herriko Kontseiluari galdegin zaio hautuzko eskumen horren alde bozkatzea sintesi dokumentuan zehaztua den bezala:

- Lurraldeko Elikadura Proiektua zehaztuz eta plantan ezarriz,
- Gobernantza bat animatuz lurraldeko eragile guziekin, elikaduraren lekuko kontseilua barne,
- Herriko Etxeak lagunduz beren jantegien politika plantan ezartzeko,
- Jende guziak sentsibilizatuz hobeki/ongi jateko.

Hor ziren kideen gehiengoa alde agertu da.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak, Philippe Bacardatz jaunak, Nathalie Aïçaguerre andereak, Amaia Beyrie andereak ez dute bozkatu.

11-c: Euskal mendiaren garapen iraunkorraren aldeko proiektuen estrategia, ekintza eta partaidetza animazioa (txostengilea: Etchelecu jauna).

Herriko Kontseiluari galdegin zaio hautuzko eskumen horren alde bozkatzea sintesi dokumentuan zehaztua den bezala:

- Mendiari dedikatua den eta ekintza baliagarri anitz dituen zeharkako lurralde estrategia apailatuz eta animatuz,
- Mendiaren eragile publiko eta pribatu guziak animatuz Euskal Hirigune Elkargoaren politiken eta eskumenen barne diren lekuko proiektu iraunkorren agerrarazteko eta laguntzeko,

- Zeharkako eta anitz gaiko urraspide eta proiektuen partaidetza babes- edota babes-kidetzaren eginez mendiko lurraldearentzat, hala nola Leader, *Nola ibili eta bizi euskal mendietan* gida, mendigune eskemen animazioa, garapen iraunkor tresnak eta gogoetak, adibidez, Eskualdeko Parke Naturala,
- Partaidetzak garatuz eta nazio, mugaz haraindiko eta nazioarteko mendiari buruzko sare eta proiektuetan parte hartuz.

Aho batez onartu da.

11-d: Hiriko euri urak (txostengilea: Devèze jauna).

Herriko Kontseiluari galdegin zaio hautuzko eskumen horren alde bozkatzea sintesi dokumentuan zehaztua den bezala, bereziki eskumen horren lurraldearen arabera definituarekin.

Aho batez onartu da.

12 – Euskal Hirigune Elkargoa: 2017ko jarduera-txostena (txostengilea: Devèze jauna).

Lurralde Elkargoaren Kode Nagusiko L.5211-39 artikularen neurrien arabera, Euskal Hirigune Elkargoaren lehendakariak HELEPen kide diren herri bakoitzeko auzapezei helarazi die 2017ko jarduera-txostena, eta dokumentu hori 2018ko irailaren 29an onartu zuen Elkargoko Kontseiluak.

Herriko Kontseiluari galdegin zaio txosten horren irakurtzea. Ez da bozkatzerik.

Bozkarik ez.

13 – AGAZ: 2019ko urtarrilaren 1eko prezioak (txostengilea: Noblia anderea).

Herriko Kontseiluari galdegin zaio Aterperik Gabeko Aisialdi Zentroen prezioen finkatzea 2019ko urtarrilaren 1az geroztik, sintesi dokumentuan ageri den bezala.

Aho batez onartua.

14 - Frantziako Auzapezen Elkartearen 101. biltzarren erabaki nagusia (txostengilea: Devèze jauna).

Herriko Kontseiluari galdegin zaio Auzapezen 101. biltzarren erabaki nagusiaren sostengatzea, sintesi dokumentuan ageri den bezala, zeinak gobernamentuarekin eraman negoziaketa-puntu guztiak berriz hartzen baititu.

Aho batez onartua.

15 – ANTIC: Open Data esperimentazio hitzarmena (txostengilea: Lassus jauna).

Herriko Kontseiluari galdegin zaio andere auzapeza baimentzea esperimentazio hitzarmenaren izenpetzera ANTIC elkartearekin, sintesi dokumentuan aurkeztua den bezala.

Aho batez onartua.

16 – Auzipetzeko gaitasuna (txostengilea: Bardin jauna).

2018ko abenduaren 3ko gutunaren bidez PAUEko auzitegi administratiboko jaun auzi-idazkari nagusiak Herriko Etxearen kontra egin eskakizuna komunikatu du. Eskakizun hori 2018ko urriaren 29an aurkeztu zen, eta 1802444-2. zenbakia du, sintesi dokumentuan ageri den bezala.

Herriko Kontseiluari galdegin zaio:

- Andere auzapezari ahalmena ematea afera horretan Herriko Etxearen interesen defenditzeko Paueko auzitegi administratiboan eta beharrez auzitegi orotan,
- Baimentzea andere auzapeza abokatu bulego baten zerbitzu juridikoei dei egitera.

Aho batez onartua.

17 – Langileak: hitzarmena kudeaketa zentroarekin Ikuskaritza Funtzioaren Ardura duen Langile baten ukaiteko (txostengilea: Devèze jauna).

Herriko Kontseiluari galdegin zaio andere auzapezari baimena ematea CDG 64rekin hitzarmena izenpetzeko Ikuskaritza Funtzioaren Ardura duen Langile baten ukaiteko. Alabaina, elkargo guzietan nahitaezkoa da laneko higienaren eta segurtasunaren alorreko ikuskaria ukaitea.

Aho batez onartua.

18 – Auzapezaren erabakien berri ematea (txostengilea: andere auzapeza).

Herriko Kontseiluak andere auzapezaren erabakien berri hartu du, bereziki hilerriko kontzesioen emateari eta berriz hartzeari buruz 2018ko azaroaren 11tik 2019ko otsailaren 9ra.

Bozkarik ez.

Gaien zerrenda bururatua zen, eta bilkura 21:45ean bukatu da.